



Ongi etorriak
British Council
Espainiara



AURKIBIDEA

- 3 Zuzendariaren agurra
- 4 Ingeles ikastaroak: ikaskuntza esperientzia pertsonalizatua
- 6 Zabaldu zure aukerak gure azterketa eskaintzarekin
- 8 British Council School: 78 urte irakaskuntzaren abangoardian
- 10 Kalitatezko irakaskuntza batekin konprometituak
- 12 Hezkuntza-helmuga: Erresuma Batua
- 13 Piztu zientziarekiko zure zaletasuna
- 14 Gizartea eraldatzen dugu artearen bidez
- 16 365 egun, 24 ordu: elkar ikusiko dugu Interneten!
- 17 Murgil zaitetz britainiar kulturari
- 18 Haurren babesa: haien segurtasuna, gure konpromisoa
- 19 Aniztasuna hazkunderako funtsezkoa

ZUZENDARIAREN AGURRA

Adiskide maitea:

Ongietorria British Councilera! Orrialde hauen bidez gure kultur- eta hezkuntza-bidaian gurekin bat egitera gonbidatu nahi zaitugu. Gaur, duela 80 urte hasi ginenean bezala, kulturen arteko integrazioa eta mundu osoko hiritarren arteko ezagutzaren hartu-emanan oso gustuko izaten jarraitzen dugu.

Etengabeko aldaketa prozesu bat bizitzen ari gara eta bertan, ezinbestekoa da errealitate berrira egokitze gaitasuna izatea, jada gure kulturen artean diren harremanak sendotzeaz gain, baita horiek indartzeko ere. Bata bestearengandik asko ikasteko dugu, eta aniztasun hori da, hain zuzen ere, indartsu egiten gaituena. Horregatik guztiagatik, orain inoiz baino gehiago, lan egiten dugun herrialde guztiekiko dugun konpromisoa berretsi nahiko nuke eta noski, bereziki, Espainiarekiko.

Orrialde hauetan ikusi ahal izango duzun moduan, hainbat proiektutan lider gara eta beste hainbatetan hartzen dugu parte. Adibidez, euren ingeles maila hobetu edo egiaztatu nahi duten edo haien seme-alabei British Council Schoolen hezkuntza bikulturala eta eleaniztuna eskaini nahi dieten adin guztietako pertsonekin egiten dugu lan. Baina, gainera, kontzertuak, erakusketak, gai zientifikoen inguruko hitzaldiak, lehiaketak eta beste hainbat jarduera ere antolatzen ditugu.

Datozen hilabeteetan hezkuntza elebidunaren garapenerako hezkuntza-komunitateari eskaintzen diogun gure babesaren areagotzen jarraituko dugu,



© Alberto Roldán | British Council

musika-industrian emakumeen sormena sustatuko dugu eta belaunaldi berrien ametsak elikatuko ditugu Future News Worldwide eta IELTS beka bezalako proiektuekin.

Ikusi guztiontzat ditugun aukerak, baita zuretzat ere. Oraindik gure egitasmoetako batean parte-hartu ez baduzu, arren, horretara animatu nahi zaitu. Ezagutu nahi zaitugu!

Adeitasunez,

Andy Mackay



INGELES IKASTAROAK: IKASKUNTZA ESPERIENTZIA PERTSONALIZATUA

la zortzi hamarkada eman ditugu ingelesa irakasten mundu osoan eta egiten dugun lana hobetzeko formulak garatzen. Horri esker, eta gure bezeroek dituzten beharrak entzuten ditugulako, ondorio honetara iritsi gara: ikasleak dira ikaskuntza esperientziaren muina.

Horregatik, gure ingeles ikastaroak berritzen ari gara gure material didaktiko propioarekin eta maila eta adin bakoitzaren bizitza estilora, interesetara eta behar pedagogikoetara egokitutako egitura malguarekin osatutako programak osatzeko.

HELDUENTZAKO GURE FORMULA

Ikaskuntza autonomo baten aldeko apustua egiten dugu, non ikasleek euren garapena planifikatzen duten euren helburuen, interesen eta libre duten denboraren arabera. Hauek dira bakoitzaren neurri egindako gure errezetaren osagaiak:

- **Ordu kopurua.** Gure ikastaroak 30 orduko modulu independenteekin osatzen dira eta, horrela, ikasleek erabaki dezakete hiruhileko bakoitzean zenbat denbora eman nahi diote ingeles hizkuntzaren ikaskuntzari.
- **Arlo tematikoak.** Modulu bakoitzak modu osagarrian egiten du lan ikasleek hizkuntza gaitasun guztiak (mintzamina, idazmina, entzumena eta irakurmina) lan ditzaten hainbat gaien eta jardueren bidez.
- **Garapen pertsonalizatua.** Irakasleen laguntzarekin, gure ikasleen ikaskuntza bultzatzen eta sendotzen dugu euren helburuak lor ditzaten eta euren esperientzia optimiza dezaten.

PRIMARY PLUS: IKASKUNTZA INTEGRALA INGELESEZ

2 eta 18 urte bitarteko haurrak eta gazteak dira gure irakaskuntza-metodologiaren protagonistak. Bertan, komunikazioa eta jardueren egitea erabiltzen dira haur, lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleek ingelesean duten ahal guztia gara dezaten. Gaur, Primary Plus ezagutzera gonbidatzen zaitugu, 2018-2019 ikasturtera begira izango dugun gure berrikuntza nagusietako bat.

Haur baten bizitzaren barruan 6 eta 11 urte bitartean doan aldia oso etapa garrantzitsua da une horretan bere gaitasunen garapena osatzen duelako eta bere buruaren

© British Council



eta inguruan duen munduaren inguruko irudi garbia eraikitzen duelako. Primary Plus ikastaroekin, hezkuntza arloan ditugun adituek diseinatu dituztenak, haurren garapen fisikoan, intelektualean eta sozialean laguntzen dugu ingeles hizkuntzaren irakaskuntzaren bidez.

Eskolak interaktiboak dira eta komunikazioa eta jokoak erabiltzen dituzten atazetan oinarritzen dira logika, sormena, pentsamendu kritikoa, gizalegea eta lidergo gaitasuna eta ikasleen talde-lana suspertzeko

Gurasoak ere oso garrantzitsuak dira Primary Plusen: txostenetan barneratutako gomendioei, jardueri eta aldizkako bilerei esker, euren seme-alaben ikaskuntzaren lekuko dira eta etxean suspertzeko aukera dute.



ZABALDU ZURE AUKERAK GURE AZTERKETA ESKAINTZAREKIN

Ingeles-mailaren egiaztapena garrantzia handia izaten jarraitzen du lan-merkatuaren globalizazioa, Erasmus+ bezalako beken zabaltzea eta gradu-ikasketak amaitzeko, graduondo ikasketetara sartzeko edota nahitaezko hezkuntza-zikloetan irakasle izateko gero eta gehiago eskatzen diren hizkuntza-eskakizunak direla eta.

British Councilen eragile aktiboak gara esparru horretan eta nazioarte-mailan aintzatespen handiena duten azterketak eskaintzeko hainbat erakunderekin lan egiten dugu. Hauek dira, besteak beste, gurekin lortu ahal dituzun ziurtagiriak:

■ **Aptis.** Ordenagailuz egiten den gure maila anitzeko probaren bosgarren urteurrena ospatzen ari gara eta jada Autonomia Erkidego gehienen eta Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Batzarra (CRUE) bezalako erakundeen aintzatespena du. Aptisek onepen

handia du, ez bakarrik bere diseinu berritzailearengatik, baita bere eskuragarritasun ekonomikoarengatik eta bizkortasunarengatik: hautagaiak 72 orduko epean lortzen ditu emaitzak.

■ **IELTS.** International English Language Testing System azterketak, horren jabeak da British Council, urtero hiru milioi hautagai baino gehiago eta 10 000 erakunderen babesa du. IELTS ezinbesteko betekizuna da mundu osoko unibertsitateetan ikasi ahal izateko eta migrazio-izapideak konpontzeko Australia, Kanada edo Estatu Batuak bezalako herrialdeetan bisak eskatzen direnean.

■ **Cambridge Assessment English.**

Unibertsitate horren tituluak ingeles-maila modu eraginkorrean, atseginean eta dibertigarrian egiazatzeko diseinatuta daude. Gainera, esperientzia gehien duen Cambridgeko zentro-aztertzailea izateaz gain, **Advantage** garatu dugu, hizkuntza-eskoletarako, ikastetxeetarako eta erakundeetarako gure fidelizazio programa. Abantaila handiak ditu gure kideentzat eta euren hautagaietzat eta irakasleentzat.

Ziurtagiri horiekin batera, hainbat unibertsitate, erakunde eta elkarte britainiarren azterketak eskaintzen ditugu, adibidez, Association of Chartered Certified Accountants (ACCA), Chartered Institute of Linguistics (CIOL) edo Chartered Institute of Marketing (CIM). Britainiar unibertsitateen batean ikasten ari bazara eta azterketa egiteko egoitza aukeratzeko aukera baduzu, gure zentrotan batean egiteko eska dezakezu.

© Ernesto Agudo



ZURE INGELESEZKO GOI-MAILAKO IKASKETAK LAGUNTZEN DITUGU.

IELTS Espainia Sariak bere laugarren edizioa bete du. Horren bidez, gure herrialdean edo atzerrian ingelesez gradu edo graduondo bat hasten duten horien etorkizun planak errealitate bilakatzen lagundu nahi dugu. Aurten, irabazlea Leonel Virosta izan da eta 10 000 euroko saria lortu du Manchesteren biologia gradu bat ikasi ahal izateko. Programaren oinarriak ikus ditzakezu gure web orrian:



www.britishcouncil.es/examenes/ielts/beca

BRITISH COUNCIL SCHOOL: 78 URTE IRAKASKUNTZAREN ABANGOARDIAN

Urtero, 2000 familia inguruk euren seme-alaben irakaskuntza British Council Schoolearen eredu elebidun eta kulturbidunaren esku uzten dute.



Bilingual Baby Club gurasoek euren seme-alabekin jarduera estimulagarri eta dibertigarri batekin gozatzeko diseinatutako jarduera da. © British Council

Baloretan oinarritutako bere hezkuntza sendoa, bere aldarte berritzailea, bere bikaintasun akademikoa eta eskolalditik haratago doazen harremanak ezartzeko borondatea dira tatxarik gabeko erreputazioa azaltzen duten zenbait faktore. Hauek dira datozen hilabeteetarako giltzarriak:

- **Wellbeing Hub.** Haurren babesa esparruko adituak eta irakasleak, gurasoak eta ikasleak biltzen dituzten topaketak ezagutza, elkarrizketa eta hausnarketa sustatzeko. Ikastetxeei, familiei eta gazteei adingabeen kasuan zirraren kudeaketa oker baten ondorioz sor daitezkeen galderak erantzun nahi dira.
- **Bilingual Baby Club.** Honen xedea da elebitasuna sustatzea (gaztelania-ingelesa) 14 eta 36 hilabete bitarteko

haurrak dituzten familietan eta, horretarako, aipatu bi hizkuntza horien asimilazioa errazten duten errutinak eta jarduerak planteatzen dira.

- **Hezkuntza berrikuntza.** THackathonek eta Musicathonek izan duten arrakastaren ondoren, British Council School hezkuntza-asteburu berri bat prestatzen ari da ikasleek gorantz doazen diziplina profesionalak ezagutu ditzaten eta ikasleen arteko errespetua sustatzen duen taldekako proiektu bat gara ditzaten.
- **Hezkuntza-bikaintasuna.** British Council Schooleko Batxilergo elebiduneko (BiBac®) ikasleak urtero euren IGCSE/International GCSE eta USEb azterketetan gailentzen dira. Emaizta horiek lortzen jarraitu ahal izateko eta USPtik USEb-era igarotzetik eman diren aldaketen



Carlos Jean ekoizleak ehun bat ikaslerekin elkarlanean aritu zen Musicathonen haurren abusuaren kontrako abesti bat ekoizteko.
© David Suárez | British Council

ulermena errazteko, ikastetxeak batxilergoko ikasleei zuzendutako lan-orientabiderako kanpaina bat estreinatuko du.

■ **Ikasleen lan-etorkizunarekiko konpromisoa.** British Council Schoolaren Workshadowing programak hamar urte bete ditu eta urte horietan guztietan ikasleak lagundu ditu gustuko duten lanbide hori zertan datzan ulertzen, egitasmoan laguntzen duten gurasoak euren lanpostuetan zer egiten duten ikusiz. Era berean, Enplegarritasun Azokaren I. edizioaren xedea izango da ikasleak orientatzea eta goranzko lanbideak ezagutzera ematea.

Lan merkatuaren beharretara egokitutako irakaskuntzaren aldeko apustua Lanbide Heziketako

ikasleei benetako lan-esperientzia eskaintzen dien LH Dualarentzako Aliantzan egiten den parte-hartzearekin osatzen da.

■ **Luzaroan irauten duten loturak.** British Council Schoolen harro gaude langile eta ikasle ohiak harremanetan mantentzea eta interesak partekatzea ahalbidetzen dien komunitate sendo bat izateaz. British Council Schoolen Elkarteak eta ikasle ohiien urteroko jaialdia esparru horren barruan egiten diren jarduera nagusiak dira.



Gure ikastetxearen inguruan gehiago jakin nahi baduzu, bisita gaitzazu:
www.britishcouncilschool.es.



900 irakasle baino gehiagok ikasturte berria ikasiz eta esperientziak partekatuz hasi zuten bost hiritan ospatu ziren gure Teaching for Success batzarretan.
© Alberto Roldán | British Council

KALITATEZKO IRAKASKUNTZA BATEKIN KONPROMETITUAK

Hezkuntza esparruan egiten dugun lana ikerketan, debatean, aholkularitzan eta trebakuntzan oinarritzen da.

Ardatz horien inguruan ingelesezko irakaskuntzaren egoeraren gaineko ezagutza handiagoa sustatzen dugu eta ingelesaren bidez, Espainian, hezkuntza-politiken arduradunekin eta profesionalekin hitz egiten dugu hartu beharreko neurrien inguruan, eta ikastetxeekin eta irakasleekin ere lan egiten dugu ikasgeletan metodologia berritzaileagoak barneratzeko.

GURE PROIEKTUAK

■ **Ikerketa.** Aurten, Espainian den hezkuntza elebitadunaren ezagutza errazten jarraitzeko, Granadako Unibertsitateak prestatu duen *Influencia de la política educativa del centro en la enseñanza bilingüe en España* txostenaren ondorioak aurkeztuko ditugu. Era berean, Britainiar Enbaxadarekin elkarlanean, beste ikerlan baten berri emango dugu *El inglés como medio de instrucción. Percepciones del profesorado de las universidades públicas en Madrid*.



■ **Debatea.** Gure *English Impact* ikerlanak azaltzen duenaren arabera, Madrilgo Autonomia Erkidegoko 15 urteko gazteen % 72,5ek B1 eta C1 bitarteko ingeles maila du. 2018an gazteen hizkuntza-gaitasunak eta gazteek ingelesa ikasteko duten motibazioa aztertzen dituen ikerketa horren ondorioak partekatuko ditugu politika garatzaileekin eta hezkuntza-komunitatearekin, betiere, belaunaldi berrien beharretara egokitutako neurriak hartu ahal izateko.

■ **Aholkularitza eta trebakuntza.** Hezkuntza, Kultura eta Kirola Ministerioarekin eta zenbait autonomia erkidegoekin elkarlanean jarraitzen dugu Programa Bilingüe izeneko programan ingelesez zein gaztelaniaz irakatsitako ikasgaiak barneratzen dituen curriculumen garapenean aholkularitza eta trebakuntza eskaintzeko. Unibertsitateekin egin dugun lanari dagokionez, berriz, ingelesez irakasten diren programen hobekuntzan laguntzen dugu hainbat ekintzen bidez, hala nola, euren irakasleen formakuntza metodologikoa.

Zure etengabeko prestakuntzak kezkatzen zaitu?

Kalitatezko irakaskuntza batekin dugun konpromisoa bereziki argi azaltzen duen esparruren bada, hori, irakasleriaren laguntza eta trebakuntzarena da. TeachingEnglish gure web-orrialdean, espezializazio ikastaroak, artikuluak eta adin eta ingeles-maila guztietako ikasleentzako eskolak planifikatzeko baliabideak eskaintzeaz gain, zure gaitasun-profesionalak zeintzuk diren ezagutzeko aukera ere izan dezakezu Teaching for Success gure trebakuntza markoan jasotzen diren 12 praktiken inguruan zure ikaskuntza planifikatzeko aukera ematen dizun gure autoebaluaziorako tresnari esker.

Espanian diren ingeles irakasleentzako gure proposamena urtero bost hiritan egiten ditugun aurrez aurreko hitzaldi-programarekin eta FutureLearn plataformaren barruan diren gure aplikazioekin eta *online* ikastaroekin osatzen da. Horietan guztietan, ezagutza eta esperientzien hartu-emana sustatzen da komunitate global batean.




Ezagutu irakasle bezala hazten jarraitzeko aukera gehiago gure ingeles irakaskuntzarako buletinean izena emanaz: www.britishcouncil.es/sobre-nosotros/newsletter.

HEZKUNTZA HELMUGA: ERRESUMA BATUA

Azken hiru urteetan ia % 25eko hazkundearekin, Erresuma Batua da unibertsitate bat eta atzerrian aukerak bilatzen dituzten gazteentzako helburu gogokoena.

Rankingetan duten posizionamendu bikaina, sona, irakaskuntza-metodologia eta ikerketarako profil altua dela eta, euren egresatuen enplegagarritasun-tasarekin batera, 2016-2017 ikasturtean 12 000 espainiar unibertsitario baino gehiago izan ziren britainiar unibertsitateetan trebatzen, Erasmus+ ikasleak kontuan hartu gabe.

 Britainiar hezkuntzaren inguruko azken albisteen berri izan nahi duzu? Bisitatu study-uk.britishcouncil.org eta parte-hartu gure jardueretan.

EZAGUTU GURE JARDUERAK

■ **Study UK azokak:** Britainiar 40 unibertsitate nagusienek hartzen dute parte horien berri izan dezazun. Gure doako tailerretan zure zalantzak argitu ahal izango dituzu.

 URRIA  MADRIL | BARTZELONA

■ **Futura aretoa:** derrigorrez bisitatu beharrekoa graduondo baten bila bazabiltza edo zalantzak argitu behar badituzu erabaki bat hartu aurretik.

 MARTXOA  BARTZELONA

■ **Hezkuntza-hitzaldiak:** 30 saio informatibo baino gehiago ikastetxeetan ikasleen artean nazioarteko esperientzia akademiko baten inguruko intesa pizteko.



■ **Going Global:** gure nazioarteko batzarrak mundu osoko 1000 ordezkari inguru biltzen ditu urtero maila globalean goi-mailako hezkuntzaren nondik norakoak zehazteko.

 MAIATZA  HAINBAT HERRIALDETAN

■ **Britainiar ikastetxeen egiaztapena** Espainian irakasten den curriculumak hezkuntza agintariak eskatzen dituzten kalitate-estandarrak betetzen dituela bermatzeko.

■ Espainiako ikastetxeetan eskaintzen diren **Lanbide Heziketako britainiar tituluaren benekotasunaren egiaztapena.**

Erresuma Batuan zer ikastearen inguruko zalantzaren bat baduzu, alderdi praktikoak, etab., idatzi education@britishcouncil.es posta elektronikora. Atsegin handiz lagunduko zaitugu!



British Councilen Erresuma Batuko hezkuntza-eskaera aurkeztu zuen bartzelonako eta Madrilgo *Study UK* azoketan. © British Council



Letizia Erregina Famelab España 2017ko finalean izan zen. Irabazlea Pedro Daniel Pajares izan zen. © FECYT

PIZTU ZIENTZIAREKIKO ZURE ZALETASUNA

Berrikuntza zientifikoek eta teknologikoek eragin zuzena dute gure egunerokotasunean. Jakin nahi duzu nola? Urtero, 600 pertsona inguruk astronomia, biologia, medikuntza, robotika edo jasangarritasunaren inguruan ikasten dute sona handia duten hainbat espainiar erakunderekin batera antolatzen ditugun jardunaldietan. Gure jardueretan parte hartzera animatzen zaitugu.

■ **Famelab España:** zientzia-barrarizketen lehiaketa internazionalena antolatzen dugu Fundación Española para la Ciencia y la Tecnologíaarekin batera (FECYT) eta Obra Social "La Caixa"rekin elkarlanean. Famelab, Espainian gero eta ospe handiagoa duen ekintza da eta zientzia-zabalkundearen diren talentu berrientzako lorbide bilakatu da. Azken lau edizioetako finaletan Letizia Erregina izan da.

📅 MARTXOA | MAIATZA 📍 ZARAGOZA | MADRIL

■ **Astronomiari buruzko zikloak** eta **A ciencia cierta** Felipe Zientzia-museoan: Ezagutu zientzia modernoaren gairik interesgarrienak puntako britainiar zientzialarien eskutik.

📅 URTARRILA 📍 VALENTZIA

■ **Hiri jasangarrien inguruko zientzia-kafeak** La Casa Encendidan: marko ezin hobea egunerokotasuna duten gai zientifikoak aztertzeke giro informal eta parte-hartzaile batean.

📅 AZAROA 📍 MADRIL

■ **Con otra mirada hitzaldiak:** CIC bioGUNErekin batera antolatutako ziklo horietan tematika berri eta erakargarriak jorratzen ditugu profesional zein afizionatuek azken aurrerapen zientifikoaren berri izan dezaten minbizia edo gaixotasun-arraroak bezalako gaietan.

📅 MARTXOA | APIRILA 📍 BILBO

GIZARTEA ERALDATZEN DUGU ARTEAREN BIDEZ

Artea aldaketarako eragile indartsua dela uste dugu. Horregatik, Espainiaren eta Erresuma Batuaren arteko kultur-elkarrizketa sustatzen dugu bi herrialdetako erakunde artistiko nagusiekin elkarlanean arituz eta industria sortzaileetako ekintzaileentzat aukera profesionalak sortuz. Datozen urteetako gure jardueren ibilbidean lagunduko gaituzu?



■ **Arts for change.** Bikaintasun artistikoaren zabalkundea eta talentuaren mugikortasuna oso bide eraginkorrak dira egun pil-pilean diren zenbait arazoentzat irtenbide iraunkorrak sustatzeko. Hauek dira gure proiektuaren ardatzak:

- **Egungo problematiken inguruko elkarrizketa.** It's Time to Talk programaren barruan, intelektualek, *spoken word*eko (ahozko poesia) artistek eta britainiar antzerkigile berriek munduaren inguruan duten ikuspegia partekatuko dute Segoviako Hay Festivalean, Bartzelonako Kosmopolis festibalean edo Centro Dramático Nacionalek antolatutako zikloetan.
- **Genero berdintasunaren sustapena,** bereziki, musikaren industrian Keychange bidez (PRS Foundationekin eta BIMÉrekin batera) edo aukerako kontzertuen antolaketan suspertzen ari diren emakumezko artistekin Cooncerti esker.
- **Gizarte-bazterketa arriskuan diren artisten lidergoaren sustapena,** sektoreko espainiar sustatzaile nagusiekin elkarlanean. Horien artean, adibidez, honako hauek azpimarra daitezke: Instituto Nacional de las Artes Escénicas y de la Música (INAEM) edo Una mirada diferente festibala. Inklusioaren aldeko apustua egiten jarraituko dugu dantzaren bidez, Royal Ballet eta Teatro Real bezalako erakundeekin indarrak batuz.
- **Ikus-entzunezko industriaren eraldaketa** errealitate birtualeko teknologien edo ekoizpen formatu

© Aleso Lin | Unsplash



Moda jasangarriaren sektoreko hogeita hamar profesional inguruk parte hartu zuten Madrid Capital de Moda programaren barruan antolatu ziren Sustainable Fashion Workshopspen barruan. © Domingo Fernández | British Council

berrien bidez, Espacio Fundación Telefónicaekin eta Academia de las Artes y las Ciencias Cinematográficas de Españarekin egiten dugun lanaren ardatza izango da.

- **Sustainable Fashion.** Programa horrek 60 europar diseinatzaileei trebakuntza eskaintzea eta ehungintza-industriako ekimen berritzaileenak ezagutzera ematea ahalbidetu du. Moda jasangarriaren aldeko gure apustua Espainian, Frantzian, Grezian eta Erresuma Batuan, punta-puntako britainiar proiektuen zabalkundearekin eta tailer, hitzaldi eta erakusketen antolaketarekin osatzen da.

Hori guztia, Espainian diren sektoreko zenbait eragile garrantzitsuenen eskutik, hala nola, Mercedes-Benz Fashion Week, ACME, Circular Project, BIAAF, moda jasangarrirako elkarteak eta Bartzelonako eta Madrilgo Udalak eta hainbat enpresa eta diseinatzaile.

- **Cities and communities.** Gaur egun, auzo-elkarteek, ekintzaile-taldeek eta hiritarren hamaika ekimenak hirien agendan modu oso garrantzitsuan eragiten dute. Errealitate berri horren berri emateko jarduera kultural parte-hartzaile eskaintza zabala garatzen dugu Espainiako hainbat unibertsitatekin eta udalekin batera.

365 EGUN, 24 ORDU: ELKAR IKUSIKO DUGU INTERNETEN!

Ba al zenekien pasa den urtean mundu osoko 198 milioi pertsonekin konektatu genuela sare sozialetan garatzen dugun jardueraren eta gure *online* formakuntza programen bidez?

Gure jarduerako arauak dira etengabeko berrikuntza eta denbora errealeko elkarrekintza gure entzule digitalekin. Zuk erabakitzen duzu nola parte hartu nahi duzun!

HOBETU ZURE INGELES-MAILA

■ **Web-orrialdeak.** LearnEnglish eta horren helduentzako (LearnEnglish Adults), nerabeentzako (LearnEnglish Teens) eta haurrentzako (LearnEnglish Kids) bertsoiak ingeles-maila hobetzeko edo helduen zein gazteen ikaskuntza prozesua laguntzeko erreferente dira. Zure maila eta interesak zeinahi diren ere, gure web-orrialdeetan beti zerbait aurkituko duzu etengabe eguneratzen direlako bideo, artikulua eta jokoekin. Modu horretan, guztiek aurkitzen dute modu dibertigarrian ikasteko modua.

© British Council



■ **Online ikastaroak.** Helburu bat baduzu eta epe zehatz batean lortu nahi baduzu, gure online ikastaroak ezagutzera gonbidatzen zaitugu. Aukerak ditugu bere ibilbidea ingelesa nagusi den testuinguru batean hasten diren horientzat, britainiar hizkuntza eta kulturaren inguruko bitxikeriak ikasi nahi dituzten horientzat, eta euren karrerari bultzada bat eman dioten ingeles irakasleentzat. Ezagutun aukeran diren programak eta aukeratu doako edo ordainpeko bertsoia zure beharraren arabera.

■ **Aplikazioak.** Aisialdia edo garraiobide publikoan ematen dituzun une horiek zure ahoskera, hiztegia, entzumena edo gramatika hobetzeko aprobetxatzea gustatzen zaizu? Gure aplikazioekin lan erraza izango duzu, adin guztietarako, eta helburu eta ingeles-maila



guztietarako. Aurten, IELTS Prep App aplikazioa estreinatuko dugu, urtero IELTS azterketa egiten dute 3 milioi inguru hautagaiei laguntzeko diseinatuta.

 www.britishcouncil.es/ingles/aprender-online

■ **Bloga.** Izan gure albisteen berri zuzenean: bisitatu gure bloga! Ikusi astero gure adituek emango dizkizuten aholkuak ingelesa zure kabuz ikasteko edo zure irakurmena hobetzeko filmak ikusten edo interneten diren baliabideak aprobetxatuz. Zure seme-alaben ikaskuntza suspertzeko hamaika aholku ere aurkituko dituzu.

 www.britishcouncil.es/blog

MURGIL ZAITEZ BRITAINIAR KULTURAN

■ **Oraindik ez gaituzu jarraitzen?** Kontzertuak, zinema estreinaldiak, opera eta balleta, Erresuma Batuan ikasteko edo lan egiteko bekak, hezkuntza-jarduerak eta zientzia-tailerrak: hainbat modu daude praktikatzeko eta zure ingelesari etekina ateratzeko britainiar kulturaren alderdi desberdinak ezagutzen dituzun bitartean. Bisitatu gure web-orrialdea eta jarrai gaitzazu sare sozialetan Espainian sortzen ditugun kultura-aukeren berri izateko, gure lehiaketetan eta *online* saioetan parte-hartzeko edo gure jardueraren inguruko edozein galdera edo iruzkin bidaltzeko. Zure zain izango gara!

 www.britishcouncil.es

 <https://www.facebook.com/BritishCouncilEspana>

 <https://twitter.com/esBritish>

 <https://www.youtube.com/user/BritishCouncilSpain>

■ **The Selector.** Radio 3ko gure asteroko musika-saioak britainiar agertokiko azken berrikuntzak eskaintzen dizkizu. Deskargatu asteko podcastak edo zuzenean entzun. Gainera, Spotifyko gure hileko erreproduzio zerrendari eta Cooncerti esker, non gustuko dituzun artistak zure herrian kontzertu bat ematea eskatu ahal duzun, britainiar muskarik onena beti zugandik gertu izango da. Gehiago nahi baduzu eta britainiar talde onenen inguruko bitxikeriak ezagutu, elkarrizketa eskusiboak ikusi edo hilero zure posta elektronikoan gure musika-gomendioak jaso nahi badituzu, gure buletinean izena eman ahal duzu eta *The Selectoren* jarduera guztia jarraitu ahal duzu Facebooken eta Twitterren.

 <https://www.facebook.com/theselector3>

 <https://twitter.com/TheSelectorR3>

HAURREN BABESA: HAIEN SEGURTASUNA, GURE KONPROMISOA

Urtero, 200 000 adingabe ingururekin egin dugu lan gure ikasgeletan, ingeles azterketetan eta Espainia osoan zehar antolatzen ditugun jardueretan (ipuin-kontalariak, antzezlanak, ateak zabaltzeko egunak, etab.).

Gure konpromisoa da haurren ongizateaz arduratzea, edozein arrisku ekiditea eta, egoera zailetan, haurrak eta euren familiak laguntzea.

JAKIN NAHI DUZU NOLA EGITEN DUGUN?

- **Langileen hautaketa.** Gure irakasleek hautaketa prozesu zorrotz bat pasatu behar dute kontratatuak izateko. Haien eguneroko lana jokabide kode batek arautzen du eta, gainera, etengabeko prestakuntza jasotzen dute aniztasuna, errespetua eta erresilientzia bezalako baloreetan hezteko.
- **Esperientzia zentroan.** Ikasleak zentroan sartzeko eta zentrotik ateratzeko segurtasun-protokoloak, etenaldietan bizikidetasun egokia, ikasgelen

© Domingo Fernández | British Council



egokitzapena garapen-maila bakoitzerako, teknologia berrien erabilera arduratsua eta ikaskideen errespetua dira gure hezkuntza-modeloaren oinarri nagusienetako batzuk.

- **Ikasleen eta euren familien esku-hartzea.** Ikasturte bakoitzaren hasieran, ikasleei zeintzuk diren euren eskubideak eta betebeharrak gogoratzen dizkiegu, betiere, jokabide arduratsu bat sustatzeko eta arazoren bat baldin badute norengana jo dezaketen ere azaltzen zaie. Era berean, gure saio-informatiboan programa zabaltzen jarraitzen dugu gure ikasleak kontzientziatzeko eta haien familiekin jokabide oldarkor eta desafiatzaileetatik, eskola-jazarpenetik edota interneten eta aplikazio mugikorren erabileratik erator daitezkeen arriskuen inguruan eztabaidatzeko.



Harremana dugun haur eta nerabeen segurtasunarekiko eta ongizatearekiko konpromisoa ebaluatzeko eta sendotzeko, aldizka haurren babesaren eta eskubideen alde lan egiten duten erakundeen plataforma den Keeping Children Safe erakundearen auditoria pasatu behar dugu.

Lan horretan, ezinbestekoa da gure ikasleen, euren familiaren eta zu bezalako pertsonen lana. Horregatik, izan dezakezun edozein galdera, iradokizun edo kezka partekatuzera gonbidatzen zaitugu protecciondelainfancia@britishcouncil.es helbidera idatziz.



Más de 20 000 personas se reunieron en Madrid para celebrar el amor y la diversidad en nuestros conciertos con motivo del World Pride 2017. © Domingo Fernández | British Council

ANIZTASUNA HAZKUNDERAKO FUNTSEZKOA

Trinidad eta Tobago, Birmania edo Zambia bezalako ehun bat herrialde ezberdinetan egiten dugu lan eta horrek 731 milioi pertsona baino gehiagorekin harremanetan izateko aukera ematen digu. Espainian, gure taldeak 28 herrialde ezberdinetako 900 kiderekin osatuta dago. Aniztasun horren aintzatespena, kudeaketa eta sustapena dira gure Berdintasun, Aniztasun eta Inklusio Politikaren oinarriak eta baita mundu osoan egiten dugun lanaren giltzarrietako bat.

Lan egiten dugun pertsona guztientzako aukera berdintasuna eta tratu zuzen eta bidezko bat sustatzen dugu, horien adina, sexua, arraza, sexu-orientazioa, erlijioa edo gaitasun fisiko edo mentalak kontuan hartu gabe.

Horregatik, kultura eta hezkuntza arloetan egiten dugun lanean, desberdintasunak gure ikasleentzako, kideentzako eta British Councilera gerturatzen diren horientzako aukerak bilakatzen saiatzen gara

Zuk ere filosofia horrekin bat egiten baduzu eta zure iradokizunak helarazi nahi badizkiguzu edo berdintasunaren, aniztasunaren eta inklusioaren esparruetan egiten dugun lanaren inguruko xehetasun gehiago jakin nahi badituzu, info@britishcouncil.es helbidera idatzi ahal diguzu.

BARTZELONA

Amigó, 74 eta 83
08021 Bartzelona
93 241 97 00
cursos.barcelona@britishcouncil.es

Azterketa saila

exams.barcelona@britishcouncil.es

BILBAO

Lehendakari Aguirre Et., 29, 2.
48014 Bilbao
94 476 36 50
bilbao@britishcouncil.es

Azterketa saila

exams.bilbao@britishcouncil.es

MADRIL

Madril Egoitza Zentrala

Pº General Martínez Campos, 31
28010 Madrid
www.britishcouncil.es
info@britishcouncil.es

Ikastaroen inguruko informazioa

91 337 35 01 / 93
cursos.madrid@britishcouncil.es

Azterketa saila

91 337 35 77
exams.madrid@britishcouncil.es

Madril - Alcalá de Henares

Universidad de Alcalá
Fac. de Económicas y Empresariales
Pza. de la Victoria, s/n
28802 Alcalá de Henares
91 507 87 40
alcala@britishcouncil.es

Madril - Alcobendas

C/ de la Constitución, 59-61
28100 Alcobendas
91 659 28 79
alcobendas@britishcouncil.es

Madril - Las Rozas

Centro de la Juventud de Las Rozas
Avda. Nuestra Señora de Retamar, 8
28232 Las Rozas
91 636 18 64
lasrozas@britishcouncil.es

Madril - Somosaguas

C/ Solano, 5-7
Prado de Somosaguas
28223 Pozuelo de Alarcón
91 337 36 36
somosaguas@britishcouncil.es

Madril - Villaviciosa de Odón

Escuela Santa Ana
C/ Santa Ana, s/n
28670 Villaviciosa de Odón
91 616 13 46
villaviciosa@britishcouncil.es

MALLORCAKO PALMA

C/ Arxiduc Lluís Salvador, 1, 4.º
07004 Palma de Mallorca
971 76 22 77
palma@britishcouncil.es

Azterketa saila

(Mallorca y Menorca)
exams.mallorca@britishcouncil.es

SEGOVIA

Avda. Padre Claret, 3
40003 Segovia
921 53 55 55
segovia@britishcouncil.es

VALENTZIA

Avda. de Cataluña, 9
46020 Valencia
96 339 29 80
valencia@britishcouncil.es

Azterketa saila

exams.valencia@britishcouncil.es

BRITISH COUNCIL SCHOOL

Prado de Somosaguas

C/ Solano, 5-7
28223 Pozuelo de Alarcón
91 337 36 12
admisionescolegio@britishcouncil.es

Madril (El Viso)

British Council Infants
C/ Alfonso Rodríguez Santamaría, 23-25
28002 Madrid
91 562 15 08
admisionescolegio@britishcouncil.es

www.britishcouncil.es

Errusuma Batuko nazioarteko Erakundea hezkuntza aukeratarako eta kultur harremanetarako. British Council Fundazioaren Espainiako Delegazioa.

BRITISH COUNCIL FUNDAZIOAREN ESPAINIAKO DELEGAZIOAK, bere Ongi Etorriak British Councilera aldiakariaren bidez, Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren oinarritzko printzipioak errespetatzen ditu. Edozein zalantza edo kontsulta baduzu, edo zure sarbide, zuzenketa, balio gabetze edo oposaketa eskubideak gauzatu nahi badituzu, data.protection@britishcouncil.es helbidera idatzi ahal duzu.